

2025eko IRAILA-URRIA

BERMEON ZER?



Irailaren 26tik 30era

San Migel auzoko jaiak

Urriaren 11n

**2020an eta 2024an
jaiotako umeen jaia**

Urriaren 13tik 18ra

Mareak jaialdia

**BERMEOKO
UDALA**

FAMILIA ESKOLAK

1

URRIAK 8, 9, 22, 23 | 17:30-19:30
OÑASUN MENTALA NERABEZAROAN

2

AZAROAK 12 | 17:30-19:30
NERABEZAROA FAMILIAN ULERTZEN

3

URTARRILAK 21 | 17:30-19:30
ARO DIGITALEKO FAMILIAK

4

OTSAILAK 18 | 17:30-19:00
GURE NERABEEN LEHEN KONTSUMOAK

5

MARTXOAK 18 | 17:30-19:30
POSITIBOAN HEZTEAK
MUGARIK EZ JARTZEA DAKAR?

TELEFONOAK:

675 025 018
94 617 91 58



Etorkintza

Basque Government
Basque Government



19 **Barikua**
Goiko plazatik
20:00etan

KALEJIRA KANTA KANTA LORUE

Herriko jaiak borobiltzeko eta asteburuko estropadak girotzeko kalejira

Antolatzailea: **Kanta kanta lorue**

20 **Zapatua**
Harriboletan
09:00-13:00

EKITALDIA HONDARTZEN ETA ITSAS HONDOEN GARBIKETA

Informazio gehiago: 609 12 29 19
izarosub@izarosub.eus

Antolatzailea: **Izaro Sub**



Portuan
18:00etatik
aurrera

KIROLA **ARRAUNA** II. BANDERA PISKIN MARINOIL- BERMEOKO HIRIA

Antolatzailea: **Bermeo Arraun Elkarte**

28 **Domeka**
Artza
Frontoian

KIROLA
ESKU PILOTA
Emakumeen Master Cup
Udako torneoko finala
Antolatzailea: **Bermeoko Udala**




25/26

KIROL JARDUERAK



M  gi zaitez
muévete_be active

*Informazio gehiago
eta izen-emateak*



SAN MIGEL AUZOKO JAIK

26 Barikua

Mus txapelketa
20:00. Izen-ematea
20:30. Txapelketaren hasiera

27 Zapatua

08:30. Bizikleta ibilbidea egiteko hitzordua, Taraskatik.
11:30. Familia ibilbide libre San Migelera, Taraskatik (euria bada ez)
13:00. Tortilla lehiaketarako izen-ematea zabaldu
13:00. Mariatxiak
16:30. Umeentzako jokoak, dantza gunea, nagusitxoentzat mahai jokoak....
19:00. Txakolin dastaketa, eleizpean (10€). Izena emateko wassapa: 686 58 96 01
20:00. AIAMA Quartet
23:00. Unholy Covers

28 Domeka

12:30. Trikitixa aita-semeak
Eguerdian. Auzo bazkaria

29 Astelehena

12:00. Meza, San Migeleko elizan eta hamaiketako

30 Martitzena

12:00. Meza, San Migeleko elizan eta kinitoa eta pastak

Antolatzailea: **Mikeltarrak jai batzordea**

SATEVI (24 ORDU, 51 HIZKUNTZA)

ANULAKUARIK: Biktima, gonido, ita profesionalentzat. Bakoak, ez da fakturan agertzen

SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA OSOA (24 ORDU)

GIZARTE ZERBITZUAK, ABOKATUA, PSIKOLOGOA

- Informazioa eskatzeak ez zaitu beste pausorik ematera behartzen
- Behar duzue edozertarako deitu

900.840.111

900.840.977

946.179.160

**INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEA GUZION
ARDURA DA**

**BERMEKO
UDALA**

01

Eguaztena

ADINKERIAREN AURKAKO EGUNA

02

Eguena

Liburutegian
19:00etan

LIBURU AURKEZPENA

'AIZKORAK ETA GUTUNAK',
Edorta Jimenez

1928an Bermeoko Almika auzoan jazotako
gertakari odoltsuaren kronika.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



04

Zapatua

Nestor
Basterretxea
aretoan
12:00etan

**EUROPAKO ONDARE JARDUNALDIEN
25. URTEURRENA**

ARKITEKTURA-ONDAREA

"Bermeo, urbanismo y arquitectura,
1860-1975", hitzaldia

Hizlaria: Gorka Perez de la Peña Oleaga

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Gizarte eta
Kultura Etxean
16:00-20:00

TAILERRA

AUTODEFENTSA FEMINISTA

Tailer teorikoa eta fisikoa

Bi eguneko tailerra: Urriak eta 4 eta 11

15 eta 19 urteko neskei zuzendua

Arropa erosoak eron beharko dira

Ezinbestekoa da izena ematea: berdintasuna@bermeo.eus,

Gizarte eta Kultura Etxean, 688 638 449. Irailaren 22an hasiko da

izen-ematea, plazak bete arte. Partaideen zerrenda izen-emate

dataren arabera egingo da. Bermeon erroldatutako emakumeek
lehentasuna izango dute.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



07

Martitzena

Gizarte eta
Kultura Etxean
Martitzenak
18:00-20:00

TAILERRA

BIZIRAUPENERAKO BRIKOLAJEA

Etxeko konponketa txikiak.

18 urtetik gorako emakumeentzat, Ana Oveja Uriberen eskutik.

Ezinbestekoa da izena ematea: berdintasuna@bermeo.eus,

Gizarte eta Kultura Etxean, 688 638 449. Irailaren 22an hasiko da

izen-ematea, plazak bete arte. Partaideen zerrenda izen-emate

dataren arabera egingo da. Bermeon erroldatutako emakumeek
lehentasuna izango dute.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



09
10

Eguena
Barikua
Taraskan
18:00-20:00

EKITALDIA

GOOGAZ PLAY Herriz Herri

Errealitate birtualeko jokoa emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko. Goizetan ikastetxeek parte hartuko dute, eta arratsaldeetan herritarrentzat zabalik egongo da.

*Antolatzaileak: **BBK eta Bermeoko Udala***



10

Barikua
Erroxaperen
lokalean
19:00etan

EKITALDIA

BINGOA

*Antolatzailea: **Erroxape Emakumeen Elkartea***



11

Zapatua
Turismo
Bulegoan
11:00etan

EUROPAKO ONDARE JARDUNALDIEN 25. URTEURRENA

ARKITEKTURA-ONDAREA

“Arquitectura contemporánea singular de propiedad municipal”, bisita gidatua

Hizlaria: Gorka Perez de la Peña Oleaga

Izena eman behar da Turismo Bulegoan: 94 617 91 54

*Antolatzailea: **Bermeoko Udala***

Erreteneko
jolasgunean
12:00etan

JAIALDIA


2020AN ETA 2024AN JAIOTAKO UMEEN JAIALDIA

Motx pailazoaren emanaldia

2024an jaiotako umeen bertso liburua familiei

Aurten 5 urte betetzen dituzten umei ipuin liburua

*Antolatzailea: **Bermeoko Udala***



15 Eguaztena

**LANDA EREMUKO
EMAKUMEEN
NAZIOARTEKO
EGUNA**



16 Eguena
Arrantzaleen
Museoan
18:00etan

HITZALDIA

ARRANTZALEEN ETXEBIZITZAK

Euskal kostaldeko elementu bereizgarrienen artean, arkitektura tradizionala duten arrantzaleen etxeak daude, itsasoari lotutako belaunaldien aterpe eta etxe izan direnak. Eraikin horreek etxebizitza hutsak baino askoz gehiago dira, barruan historia eta tradizio asko baitaude (euskaraz).

Hizlaria: Aingeru Astui Zarraga

Doan

Erreserba beharrezkoa da: 94 688 11 71 //
arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Antolatzailea: **Arrantzaleen Museoa**

Liburutegian
18:30-20:00

OHIKO IRAKURLE TXOKOA

'EMAKUME IZOZTUA', Gema Lopez Las Heras

Sinopsia: Ume koxkorra zenetik hasi eta haurtzaro, nerabezaro eta gaztaroan barrena, bere bizitzaren azterketa xehea egiten du narratzaileak, unean uneko amets, fantasia eta irrikak kontatuz, eguneroko lan, solas eta ohiturekin batera. Horrela, bere buruaren analisi zorrotza ez ezik, jendarte oso baten erretratu fidela ere eskaintzen digu, XX. mende erdialdeko Frantziarena, eta, orobot ikasketei esker gurasoen gizarte-maila apala gainditu nahi izan duten neska gazteena. Emakume ikasia eta kontzientziaduna da protagonista, eta berdintasunez banatu nahi dituzte etxeko lanak bikotean, baina jasotako hezkuntzak, arau ezarriek eta inertzia sozialek andrazkoaren gain utziko dituzte etxeari, haurrei eta hazkuntzari dagozkien zeregin guztiak. Bere esperientzia kontatuz egileak, idazkera gordin eta aldi berean eder batekin, agerian jartzen du Mendebaldeko emakumezkoak harrapatuta dauzkan amarrua, *emakume izoztu?* bihurtu dituen patua.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



Bermeo

Ariaren - octubre
13tik - 18ra - 2025

• Tradizioa eta abangoardia herri kulturean •

MAKRAK JAIALDIA



13 astelehena
18:30
Herriaren Herriaren Herriaren
Emeen Kemen
Maider Alcega + Igor Salas
Ipuin Kontaketa **Doan**
(16 urteko gora herriak)

14 asteartea
19:00
Herriaren Herriaren
Habia - Gaithe Herriaren
Kontaketa aHerriaren **Doan**

15 asteazkena
19:00
Herriaren Herriaren
Frankenstein
agurgarria - Herriaren - Herriaren
Ana Salazaraga + Petti
Herriaren + Herriaren **Doan**
(16 urteko gora herriak)

16 osteguna
19:30
Herriaren Herriaren Herriaren
Retno Dijete
(2003) - Herriaren
Jine dokumentala **Doan**

17 ostirala
20:30
Herriaren Herriaren Herriaren
Besaide
Herriaren - Herriaren - Herriaren
Mandragora
Herriaren - Herriaren
Kontaketa **Doan**

18 larunbata
09:45 Herriaren Herriaren Herriaren
Herriaren Herriaren
Sorbituaga Ko
Juinarria
Juan Carlos
Kontaketa aHerriaren

20:30
Herriaren Herriaren Herriaren
Kontaketa **Doan**
Comando
Psicografico
Herriaren - Herriaren

Doce Fuegos
Herriaren
R.E.O.
Herriaren Herriaren Herriaren
Herriaren



mafrajaialdia




Bizkaia

mb



BERMEOKO
UDALA

16 Eguena
Nestor
Basterretxea
aretoan
19:00etan



ZINEMA ZIKLOA

ITSASPEKO ZINEMA

CIMASUBek itsas munduko mirarietan murgiltzera gonbidatzen gaitu, film laburren eta dokumentalen aukeraketa zainduaren bidez. Hiru saioetan zehar, bertaratutakoak koralezko arrezife koloretsuetatik Atlantikoko ur hotzetara garraiatuko dira, eta paisaia paregabeak eta izaki liluragarriak arakatuko dituzte.

Proiektzio bakoitzak ozeanoaren edertasun bisuala eta bere kontserbazioari buruzko mezu sakonak konbinatzen ditu. Istorioek gizakien eta marrazoen arteko lotura espiritual, arriskuan dauden espezieak babesteko borroka eta ekosistema hauskorrak hartzen dituzte. Era berean, klima-aldaketa, kutsadura eta neurrigabeko arrantza bezalako erronkei aurre egiteko premia nabarmentzen da.

Zikloak kostaldeko komunitateen kultura-aniztasuna eta itsasoarekin duten harremana ere ospatzen ditu, eta ingurune horietan gizakiak duen eraginari buruz hausnartzera gonbidatzen du. Emozioen nahasketa batekin, kontenplazio lasaitik aldaketarako inspiraziora, proiektzio hauek esperientzia aberasgarria dira ozeanoa eta natura maite dutenentzat.

Sarrera: doan

*Antolatzaileak: **Bermeoko Udala eta Cimasub (Donostiako Nazioanteko Itsaspeko Zinema Zikloa)***

17 Barikua
Liburutegian
18:00etan

FILM EMANALDIA

TXIKIZINE

Umeentzako filma jarriko da umeentzako liburutegian

*Antolatzailea: **Bermeoko Udala***

18 Zapatua
Turismo
Bulegoan
11:00etan

EUROPAKO ONDARE JARDUNALDIEN 25. URTEURRENA

ARKITEKTURA-ONDAREA

“Arquitectura contemporánea singular de propiedad municipal”, bisita gidatua

Hizlaria: Gorka Perez de la Peña Oleaga

Izena eman behar da Turismo Bulegoan: 94 617 91 54

*Antolatzailea: **Bermeoko Udala***

19 Domeka

BULARREKO MINBIZIAREN
NAZIOARTEKO EGUNA




Arrantzaleen
Museoan
12:30ean

LIBURU AURKEZPEN "ARRAINGORRI", Jon Kepa Iradireña

Galeragatik, traizioagatik,
mendekuagatik eta itxaropenagatik
gurutzatutako bizitzak igarotzen
diren eleberririk historikoa.

Jon Kepa Iradik eta Juan Carlos
Goienetxeak parte hartuko dute
aurkezpenean



22 Eguaztena
Liburutegian
18:30-20:00

IRAKURLE TXOKO FEMINISTA

ROSSETI-REN OBSESIOA, Ramon Saizarbitoria

Sinopsia: Eta, azkenean, pare bat jolas metaforikorekin luzatu ondoren, alegoriak utzi, eta bere ipurmasailak aipatzen nituen besterik gabe. Ipurmasail biribilek zoratzear nindukaten, irrealitatetik -batzuetan duda egiten bainuen existitzen ote ziren- egiazko bizitzara nidekartelako. Amets huts zinena gorpuztu egin zara, zure ipurmasailak dakuskidalako, eta bide horretatik, zutaz ase nahi dut, zure ahotik edan.... Ez dut uste ulertu ahal izateko gehiago esatea merezi duenik, kontuan hartuta ez dela hau, inondik ere, harro sentiarazten nauen oroitzapena. Ez dakit nola izan nintzen horren ausarta, kontuan hartuz ere errazago dela horrelako gauzak izkribuz esatea. [...] Telefonoz deitu zidan, goizez, eta berehala jakin nuen eragin positiboa lortu nuela izkribuarekin. Bestela izan balitz ez zidan deituko, noski, baina, horretaz gain, nor da? galdetu nuenean, bizitza osoan ordu arte entzundako doinurik sentsualena entzun nuen. Zin dagit belusezko ahotsak existitzen direla. Maite zaitut esan zidan, zeta gaztelan ahoskatuz. ¿Lo digo bien?. Baietz erantzun nion noski. Qué maravilla esan zidan, qué bien escribes, me tienes anonadada. Antzeko baieztapen zerrenda luze baten ondoren, ea ba al nekien non zegoen galdetu zidan, eta nik, noski, ezetz; nola jakin behar nuen. Ohe gainean nago etzanda esan zidan. Estoy tumbada encima de la cama y tengo los muslos calientes, tío. Pentsa daitekeenez, ezin nuen listurik irentsi. Harriturik nengoen portaera harengatik, eta harro nire literaturaren eraginagatik. Irakurtzen ari nintzen liburua esku artetik erori zitzaidan.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



24 Barikua
Liburutegian
18:00etan



Bermeoko
Kafe
Antzokian
20:00etan



Erroxaperen
lokalean
19:00etan

Goiko plazatik
20:00etan



IPUIN KONTALARIA

'IZARE ROCK ZIZARE', Libe Estebaranz Leizea
Zizare rockeroak landatik at bizi daitezke? Izare zizarea rock and rolleroa eta bihurria da. Musika eta egin ez den hori asko du maite. Izareren rock abenturak biziko ditugu txotxoengiloekin eta musikaren bitartez.

4 urtetik gorakoei zuzendua

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

ANTZERKIA

LA SED DEL MINOTAURO, Khea Ziater

Khea Ziater konpainiaren proposamen berri hau, beste urrats bat da antzerkiaren eta arte zinematografikoaren arteko harreman-kodeen bilaketan. La sed del minotauro antiheroiez mintzo da, izaki nahigabetuez eta apur bat desesperatuez, zoriona konkistatzeko borroka galtzeko beldurrari aurre egiten dioten izakiez, gizon eta emakume sendo eta bihotz handikoez. Hotz egiten duen leku bateko kafetegi-taberna txiki batean gertatuko da dena. Bezeroak sartu-irtenean dabilta, maitasunaren bila, ia kontuan hartzen ez dituen mundu batetik ihesi. Mundu bidegabea, arrotza eta etsaia gure pertsonaia maiteentzat. Baina, gaurko gaua gau berezia da. Gauza handiak gertatuko dira.

Egilea eta zuzendaritza: Alex Gederiaga Antzezleak: Jon Ander Urresti, Ainhoa Artetxe, Leire Ucha/Miren Gaztañaga, Arrate Etxeberría, Txubio Fdez. De Jaúregui

Elebiduna

Sarrera: 12 € (Deskontudunak 9€ takilan bakarrik). Salgai urriaren 13tik aurrera Gizarte eta Kultura Etxean eta udaleko webgunean.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintzea.

FILM EMANALDIA

LOS AITAS

Antolatzailea: **Erroxape Emakumeen Elkarte**

KALEJIRA

KANTA KANTA LORUE

Herritar kantuzale guztiak animatzen ditugu gurekin batera, euskal kantugintza herrian zabaltzera.

Kantatzen duen herria... bizirik dagoen herria delako!

Antolatzailea: **Kanta kanta lorue**



25 **Zapatua**
Goiko plazan
09:00-19:00

MERKATUA

BIGARREN ESKUKO MERKATUA

Saldu, oparitu, aldatu....birziklatu soberan daukazuzan gauza guztiak, emon bizi barria eta egin erosketa arduratsuak.

Antolatzaileak: **Haitz Nagusije auzo elkarte eta Bermeoko Udala**

27 **Astelehena**
Gizarte eta
Kultura Etxean
19:00etan

AURKEZPENA

BERDINTASUNAREN ALDEKO GIZONAK

Hausnartzeko eta parte hartzeko espazioa. Zer da gizona izatea? Zelan bizi zaintza? Eta aitatasuna? Edozein adineko gizona zuzendua.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Laguntzaileak: **Gizonduz eta Emakunde.**



30 **Eguena**
Arrantzaleen
Museoan
19:00etan

EKITALDIA

XALBADORRENETIK XALBADORRENERA KANTAMINTZA

Euskal kantagintzaren bidez, euskaraz gozatzeko saioa. Modu jolasgarrian, errepaso ederra emango diogu gure historiari, gure kulturari. Kantaz kanta, kontuz kontu, modu ludiko eta entretenigarrian, gure altxor ederretik batera edan eta asetzeko saioa izango da, bertsogintzaren historia bera ere errepasatzen duena.

Euskararekin ondo pasatu nahi duen guztiari zuzendua: heldu zein gazte, kantua hari eroalea izanik, ondo pasatu eta hegan egin nahi duen guztiari zuzendutako saioa.

Hasi gaitezen azaroaren 15ean Bermeon izango dugun Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren finalerdikorako girtotze ariketak egiten, motorrak berotzen...

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



31 **Barikua**
Liburutegian

EKITALDIA

GAU BELTZA

Ekimen bereziak

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Arrantzaleen
Museoan
19:00etan

HITZALDIA

ARIMEN GAUA

Nagusiei zuzendutako hitzaldia

Misterioz beteriko gau honetan, Euskal Herriko heriotzaren ikuspegian sakonduko dugu, norbait hiltzen zeneko erritu folklorikoak, arimaren trantsizioa, hildakoen adierazpenak eta arbasoen gurtza (gaztelaniaz)

Hizlaria: Mary Bramble

Doan

Erreserba egitea beharrezkoa da: 94 688 11 71 // arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Antolatzailea: **Arrantzaleen Museoa**

Kultur Zerbitzuak

Urritik aurrera

LUDETEKA

6-11 urte bitarteko ume eta gaztetxoentzat

Bariku eta zapatuetan: 17:00-20:00

Gizarte eta Kultura Etxean



ZINEA

NESTOR BASTERRETXE ARETOAN

Astero filmen informazioa udalaren webgunean, Bermeo Zabaltzen APPan eta sare sozialetan zabalduko da. Sarrerak: salanestorbasterretxea.sacatuentrada.es

Sarreraren prezioa:

Zapatu eta domeketan: 6,00 €

Astelehenetan, ikuslearen egunean: 4,50 €

Umeen filmak: 4,50 €

Ordutegia:

NAGUSIEN FILMAK

Zapatuetan eta domeketan: 19:30ean

Astelehenean (ikuslearen eguna):

19:00etan eta 21:30ean

UMEEN FILMAK

Zapatuetan eta domeketan: 17:00etan

*Oharra: ordutegiak aldatu ahal izango dira, filmak luzeak direnean.

Irailean:

- **Irailaren 21etik 22ra:** Sin cobertura eta Los super Elfkings
- **Irailaren 27tik 29ra:** Maspalomas eta Heidi, el rescate del lince



KZ GUNEa

AURREZ AURREKO IKASTAROAK

Urriaren 1etik 3ra: 11:00-13:00. "Zure bidaia planifikatu" (gaztelaniaz). 6 ordu.

Urriaren 20tik 23ra: 09:00-11:00. "LibreOffice Writer. Zure testu dokumentuak sortu" (gaztelaniaz). 8 ordu.

Urriaren 20tik 23ra: 11:00-13:00. "LibreOffice Writer. Zure testu dokumentuak sortu" (gaztelaniaz). 8 ordu.

Urriaren 24tik 28ra: 09:00-11:00. "LibreOffice Calc. Zure kalkulu orriak sortu" (gaztelaniaz). 6 ordu.

Urriaren 24tik 28ra: 11:00-13:00. "LibreOffice Calc. Zure kalkulu orriak sortu" (gaztelaniaz). 6 ordu.

Urriaren 29tik 31ra: 09:00-11:00. "InstaCanva. Ikasi diseinatzen" (gaztelaniaz). 6 ordu.

Urriaren 29tik 31ra: 11:00-13:00. "InstaCanva. Ikasi diseinatzen" (gaztelaniaz). 6 ordu.

IT TXARTELAK ATERATZEKO AZTERKETEN DATAK

Urriaren 2an: 09:00-11:00

Urriaren 20an: 14:00-16:00/16:00-18:00

Zubiaur tar Kepa 26-28

1. solairuan (udal-azokan)

Tel.: 944033325

www.kzgunea.eus

tutor.bermeo@kzgunea.net

GIZ

ASIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA

Eusko Jaurlaritzak homologatutako titulua

Noiz? 2025eko urritik 2026ko maiatzera arte (12 asteburu).

Non? Bermeoko Gizarte eta Kultura Etxean.

Ordutegia: Zapatuetan (10:00-18:30).

Baldintzak: 18 urte izatea edo 2026an betetzea, DBHko titulazioa izatea eta euskaraz jakitea.

Izen-ematea: GIZen, plaza kopurua bete arte. Plaza kopuru mugatua

INFO + eta izen-ematea www.gizbermeo.blogspot.com - 688 819 950

(WhatsApp zenbakia) - 946179158 - giz@bermeo.eus



BIDAIA TEKA

Mundu osoko gidak zure esku udako bidaiak eta oporrak prestatzeko!

Bidaia-giden 15 eguneko doako mailegua. Eta, gainera: bidaietako aldizkariak, ostatuak, kanpinak, gazteentzako nazioarteko txartelak: aterpe kide txartelak, ISIC, ITIC...

INFO + www.gizbermeo.blogspot.com



LAN-ESKAINTZEN HARPIDETZA ZERBITZUA

Lan-eskaintzak Whatsapp bidez jasotzeko, 688 819 950 zenbakira idatzi.

Zerbitzuan alta emateko, 688 819 950 telefono-zenbakia gehitu behar da

mugikorreko kontaktuaren agendan, eta www.gizbermeo.blogspot.com

webguneke eskaera-inprimakia bete.



IKASTAROAK

BARRUETA ARTE ELKARTEAREN IKASTAROAK

PINTURA IKASTAROAK

Nagusiak:

Martitzenetan

11:15etik 13:15era

18:00etatik 20:00etara

Umeak:

Barikuetan

17:30etik 19:30era

25 € hilero

Barrueta arte elkarteak
antolatua



MARRAZKETA IKASTAROA

Nagusi eta gazteentzat, 12 urtetik gorakoentzat::

Martitzenetan arratsalde, 17:00etatik 18:00etara

15 € hilero

Izena emateko:

Gizarte eta Kultura Etxean

Irakaskintza kalea 14-16

barrueta.arte@gmail.com



ERROXAPE EMAKUMEEN ELKARTEAK ANTOLATUTAKO IKASTAROAK

Yoga

Puntua eta Kakorratza

Ehoziriak

Bizkar eskola

Abesbatza

Patchwork

Eskulanak

Joskintza

Gitarra eta ukelelea

Izena eman irailaren 17tik aurrera
Erroxaeko Erreteneko lokalean



OHARRAK


Unibertsitatez kanpoko bekak
eskatzeko epea, urriaren 6ra arte



Bermeoko adingabeen ikasketetan
lagundu nahiko zeunke? Egin
zaitez boluntario Eskola Arrakasta
proiektuan!

Hasiera: Urrian

Martitzenak eta eguenak: 16:30 - 18:00.



BEHARGINTZA

Ezagutu
Behargintzaren
Zerbitzuak



01 EKINTZAILETZA

Zure enpresa sortu edo negozio bat bereganatu nahi dozu eta daduen dirulaguntzak ezagutu eta aholkularitza jaso?

02

Langabetua zara eta laneratzeko eta zure prestakuntza hobetzeko laguntza behar dozu?

03

Enpresa eta merkatarientzako dirulaguntza zein laguntza programen barri izan nahi dozu?

HURBILDU ZAITEZ BERMEOKO UDALEKO
BEHARGINTZARA !!

(udal azoka, 1go solairua, Zubiaur tar Kepa 26-28)

@ behargintza@bermeo.eus

946179190

Badaezpada... Bermeon erosi!

Bermeon erosteko eta tokiko merkataritzari laguntzeko kanpaina berria martxan!



HERRIRAKO

BERTOKOA

KONFIANTZAKOA

HURREKOA

GEUREA

KALITATEKOA

EUSKARA

EUSKARA ESKOLAK

Etorkin eta gurasoentzat

Izen-ematea: Irailaren 21etik urriaren 11ra, Berhaz bulegoan

Etorkinentzako eskolak

Harrera ikastaroa

Euskera ikasteko eta euskal kultura ezagutzeko lehen urratsak

Urritik maiatzera

Egun bi astean, ordu bi egunean

Ordutegi malgua

Ikastaro osoaren prezioa: 10€ + 17,50€ (eskola materiala)

Izen-ematea: Irailaren 22tik urriaren 10era, Berhaz bulegoan edo Gotzon Garitaonaindia euskaltegian



Gurasoentzako eskolak

Seme-alabekin ohiko harremanetan oinarritzko trebetasunak

lantzeko ikastaroa

Nagusiki adingabeko seme-alaben gurasoei, tutoreei... zuzendua


Urritik maiatzera

Egun bi astean, ordu bi egunean

Ordutegi malgua

Ikastaro osoaren prezioa: 20€

Izen-ematea: Irailaren 22tik urriaren 10era, Berhaz bulegoan edo AEK euskaltegia



HELDUEN ANTZERKI TAILERRA

Urritik ekainera bitartean

Hasiera: Urriaren 8an

Eguaztenetan, 19:30etik

21:30era, Gizarte eta Kultura

Etxean

Izen-ematea: Irailaren 15etik
30era, Berhaz bulegoan

Prezioa: 115€

Info+: www.bermeon-euskaraz.eus,
Berhaz eta Euskera Saila



DIRULAGUNTZAK

GIDABAIMENA EUSKARAZ

Gidabaimena euskeraz prestatu eta azterketa teorikoa euskeraz egiten daben Bermeoko biztanleentzako dirulaguntza.

Eskaerak: urriaren 1etik 31ra, Berhaz bulegoan eta egoitza elektronikoan

Info+: www.bermeon-euskaraz.eus, Berhaz eta Euskera Saila

EUSKARA IKASTEKO

Euskara ikasteko dirulaguntzak. 2024/2025 ikasturtean edota udan, homologatuta dagozan euskaltegi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egin dituzten Bermeoko biztanleentzako dirulaguntza.

Eskaerak: urriaren 1etik 31ra, Berhaz bulegoan edo egoitza elektronikoan

Info+: www.bermeon-euskaraz.eus, Berhaz eta Euskera Saila

ERAKUSKETAK

Arrantzaleen Museoan

EMAKUME ZAMAKETARIAK "IKUSARAZI BEHARREKO LANBIDEA"

Irailera bitartean

Bizkaiko Batzar Nagusietatik ekarritako erakusketa hau beren indar eta adorearekin lurraldearen garapen komertzial eta ekonomikoaren giltzarri izan ziren emakume ikusezin haiei egindako omenaldia dugu. Portuko ofizio gogor, anker eta txarto ordainduari buruz Amaia Apraiz Sahagunek eta Maria Romano Vallejok egindako ikerketalanarekin lotutako erakusketa da.

Museoko ordutegia:

Martitzenetik zapatura: 10:00 – 19:00
Domeka eta jaiegunetan: 10:30 – 14:30
Astelehenetan itxita.

Tel. 94 688 11 71 / helbide elektronikoa:
arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus
www.bizkaikoa.bizkaia.eus

Antolatzailea: **Arrantzaleen Museoa**



Nestor Basterretxea Aretoan

CIMASUB ARGAZKIEN ERAKUSKETA

Argazki erakusketa. Gure ozeanoak babesteko tresna.

CIMASUB ez da itsaspeko zinema bakarrik; gizakiaren eta ozeanoaren arteko harremanaren dimentsio ugari biltzen dituen ekitaldi oso bat da. Zinema-emanaldiekin batera, urpeko argazki-erakusketa zirrargarria aurkezten da, bisitariak itsas hondo misteriosuetan eta gizateriaren eta naturaren arteko harreman konplexuan murgiltzeko ateak irekitzen dituena.

Urriaren 3tik 12ra, 19:00 – 21:00

Antolatzaileak: **Bermeoko Udala eta
Cimasub (Donostiako Nazioarteko
Itaspeko Zinema Zikloa)**

JAVIER ETA DANIEL TORRE "GARBIE" PINTURA ERAKUSKETA

Urriaren 17tik 26ra, 19:00 – 21:00



Azaroan...

Halloween Metal Fest
Xomorrotxoak umeentzako
antzerkia
Kortxoaren dilema antzerkia
San Martin eguna
San Martin auzoko jaiak
San Andres auzoko jaiak

Jarri hemen zure publizitatea

Prezioa: 250 €

94 617 91 57
kultura@bermeo.eus

www.bermeo.eus

